



ZESTOAKO UDALA

AKTA

2020ko urtarrilaren 28an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoan, bi mila eta hogeiko urtarrilaren hogeita zortzian, arratsaldeko zortzietan, **Mikel Arregi Urrutia** jauna mahaiburu delarik, korporakide hauek biltzen dira: **Nerea Odriozola Larrañaga, Ruben Alberdi Uranga, Beatriz Zubia Arambarri, Aitor Salegi Martija eta Pilar Perurena Larrañaga**, EH BILDU Udal taldeko zinegotziak; eta **Garikoitz Mendizabal Etxeberria, Eva Mangas Beobide, Katixa Monreal Cuesta, Javier Manteca Martin eta Karmel Bedita Mendizabal Irigoien** EAJ-PNV Udal taldeko zinegotziak.

Idazkari lanetan, Korporazioan jarduten duena, **Ander Cestona Unanue** jauna.

Alkateak ongi etorria eman ondoren gai zerrendari ekin dio

1.- 2019ko ABENDUAREN 19an BURUTUTAKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BALITZ.-

Ez da aldaketarako inongo proposamenik aurkeztu, beraz, 2019ko abenduaren 19an buruturiko saioaren akta bere horretan onartu da AHO BATEZ.

2.- UDAL TALDEAK OSATZEKO EHBILDU ETA EAJ-PNV-REN PROPOSAMENEN BERRI EMATEA.-

Alkateak adierazi du, Zestoako Udalean ordezkariak duten bi talde politikoak, udala eratu zenean udal talde politikoak eratzeko tramitea ez zutela formalizatu eta orain egin dutela tramite hau.

Udal batzarrari berri eman zaio:

2020ko urtarrilaren 14ko datarekin eta 48 sarrera zenbakiko idatzia

Taldea: Zestoako Euskal Herri Bildu Udal Taldea

Bozeramailea Mikel Arregi Urrutia

Ordezkariek: Nerea Odriozola, Pili Larrañaga, Ruben Alberdi, Beatriz Zubia eta Aitor Salegi

Taldea: Zestoako EAJ/PNV Udal Taldea

Bozeramailea Garikoitz Mendizabal

Ordezkariek: Eva Mangas, Karmelo Mendizabal, Katixa Monreal eta Javier Manteca

3.-ZINEGOTZIEN ASISTENTZI ETA ESLEIPENEN ORDAINKETEN EREDU ALDAKETA.-

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideen seiren aldeko botoekin, eta kontrako bostekin honako erabaki hauek hartu ditu:



ZESTOAKO UDALA

Lehena.- Zestoako Udaleko zinegotzien asistentzi eta esleipenen ordainketa eredua aldatzea. Udal talde bakoitzari 100,00 euro zinegotziko eta hileko ordainduaz eta batzordeburu bakoitzari 166,00 euro hileko.

Bigarrena.- Erabakia Aldizkari Ofizialean argitaratzea TAOL-eko 75.5 artikulua araberara.

4.- ZINEGOTZI LIBERATUEN SOLDATEN EGOKITZAPENA.-

Alkateak adierazi du, dedikazioa duten zinegotzien soldatei buruz EHBilduk irizpide batzuk dituela. Zinegotzien soldatak alkatearen araberara ezarri zirela adierazi du alkateak, eta orain soldata horiek EHBilduk dituen taulen araberara doituko direla gehitu du.

Ondoren, Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideetatik aldeko sei botoekin eta bost kontrakoekin ondorengo erabakiak hartu dira:

Lehena: Dedikazioen erregimen ekonomikoa aldatzea zinegotzietan dagokienean baldintza hauetan:

Zinegotzia: Hirigintza eta Pertsonal arloak landuko dituen zinegotzia: %33eko dedikazio partziala. Ordainsari gordina: 10.517,43 €/urtero.

Zinegotzia: Kultura eta Ondare arloak landuko duen zinegotzia. %33eko dedikazio partziala. Ordainsari gordina: 10.517,43 €/urtero.

Bigarrena.- Zinegotzien erregimen aldaketa hau indarrean 2020ko otsailaren 1etik aurrerako eraginarekin izatea.

Hirugarrena.- Dedikazio osoa edo partziala duten udalkideek ez dute parte diren kideanitzeko organoetara joateagatik bertaratze edo asistentziarik jasoko.

Laugarrena.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitara ematea.

5.- BATZORDEEN EGOKITZAPENA.-

Alkateak adierazi du Euskara eta Hezkuntza batzordea aurrerantzean Euskara, hezkuntza eta Komunikazioa izango dela.

Bestalde, batzordeburua Aitor Salegi zen eta aurrerantzean Nerea Odriozola izango dela adierazi du. Aitor Salegi batzordeko kide izango da.



ZESTOAKO UDALA

6.- URTARRILAREN 30EKO GREBARI BURUZ EHBILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Alkateak urtarrilaren 30eko grebari buruz EHBilduk aurkeztutako mozioaren berri eman du:

EBAZPEN PROPOSAMENA

Horiek horrela, Zestoako Udalak:

Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko grebari atxikimendua adierazi nahi dio.

Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie erakundeko langileei.

Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimenduarekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik:

Madriren osatu berri den Gobernuari eskatzen dio:

- *2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsioen murrizketak indargabetzea.*
- *Zapateroren eta Raxoiren lan erreformak bertan behera uztea.*
- *Presazko izaeraz, Gizarte Segurantzaren eta Enplegurako Politika Pasiboen gaineko eskumenak transferitzea.*

Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die:

- *1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.*
- *Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiarazi ditzatela.*
- *Estatu mailako hitzarmenen ginetik, hitzarmen kolektiboen ultra aktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa lehenesteko sustapen lana egin dezatela.*
- *Lan Ikuskaritzako giza baliabideak handitzea, Europako Batasunekoekin parekatu arte, eta lan istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.*
- *Lan harremanetarako eta babes sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiaraztea.*

Erkidego eta lurraldeetako gobernuei eskatzen die:

- *Gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala eta pentsio arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.*
- *Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioetako iruzurra zigortzea.*
- *Soldata gutxitu gabe, asteko lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiaraztea.*
- *Bereziki emakumeei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.*



ZESTOAKO UDALA

- *Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.*
- *Kontratazioan, sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia jardueraren arabera diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.*
- *Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazio guztietan.*

Zestoako Udalean adostutako ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko zaie.

Zestoan, 2020ko urtarrilaren 28an”

Garikoitzek hartu du hitza eta ondorengo adierazi du, erakunde moduan eta alderdikide bezala ezetza ematen diogu moziolari.

Alkateak grebara atxikitzea proposatzen du, eta gogorarazi du, udaleko langileen gehiengoak ere greba egitea erabaki dutela.

Ondoren, Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideetatik aldeko sei botoekin eta bost kontrakoekin mozioa onartu egin da.

7.- ZESTOAKO HAPOAREN AURRERAKIN DOKUMENTUAREN ONARPENA

Alkateak adierazi du Zestoako HAPOa idatzi eta lantzeko lanak aurrera doazela. Aurre-aurrerakina egin zela adierazi du. Ondoren parte hartze prozesu bat garatu dela gehitu du. Orain Udal Batzarrari aurkezten zaion dokumentua aurrerakina dela adierazi du, eta haserako onespina eman eta bi hilabeteko epean jendaurrean jarriko dela gehitu du, parte hartze prozesuarekin ere jarraituko dela.

Alkateak proposamena bozkatzea proposatu du. Udal Batzarrak, saiora bertaratutako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

LEHENA.- Zestoako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) Aurrerakina onartzea eta jendaurrean jartzea bi hilabetez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedadura handiena duen egunkari batean iragarkia jarrita eta epe horretan interesdunek, nahi izanez gero, iradokizunak eta alternatibak aurkez ditzakete. Aurrerakina udal mugakideetara bidaliko da ezagutu dezaten, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 90.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Dokumentua eskuragarri Zestoako Udalean eta www.zestoa.eus udal web orrian jartzea

BIGARRENA.- Zestoako Udalerriko HAPOarekin batera, landuriko ELEa Eusko Jaurlaritzako metodologiaren arabera banakako fitxa gehigarriekin osatua onartzea.



ZESTOAKO UDALA

HIRUGARRENA.- Onarturiko parte hartze programaren arabera, dagozkion herritarren parte hartze plangintza garatzea.

8.- IRAURGI BERRITZEN ETA UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN EGUNERATZEAREN INGURUKOAK.

Alkateak berri eman du, Sozioekonomia batzordean eta Ogasun batzordean ere gaiaren berri eman dela. Iraurgi Berritzen eta Zestoako Udalaren arteko hitzarmena berritzea, alegia.

Helburua gaia mahai gainean jartzea zela eta txosten bat egingo dela gehitu du.

9.- ZESTOAKO UDALAREN DIRU LAGUNTZEN 2020-2023 PLAN ESTRATEGIKOA

Zestoako Udalaren diru laguntzen 2020-2023 plan estrategikoa onartzea proposatzen da.

Herriko Kontuen Euskal Epaitegiak eginiko txostenean ere jasotzen dela gogorarazi du, diru laguntzak eman ahal izateko plan estrategiko bat onartzea. Tramite bat dela gehitu du.

Ondoren, Alkateak proposamena bozkatzea proposatu du. Udal Batzarrak, saiora bertaraturako Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakideetatik hamarren aldeko botoarekin eta abstentzio batekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

LEHENA.- Hasierako onespina ematea Zestoako Udaleko 2020-2023 Diru-laguntzen Plan Estrategikoari.

BIGARRENA.- Espedientea jende aurrean jartzea, hogeita hamar eguneko epez, egoki iritzitako erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Adierazitako informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, aipaturako Zestoako Udaleko 2020-2023 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa behin-betirako onetsiko da, beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

10.- ERREGU ETA GALDERAK

Ez dago.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko zortziak eta berrogei eta hamar direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. e.
ALKATEAK,